

Goierri tarra

274. zenbakia 2005eko urtarriak 28



INAUTERIAK

Goierriko

baziren eta badira



Zuretzako astia



www.antzizar.net

tel. 943 887900



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

Goierri

Hementxe gaude

Urbialde plaza, 7- behea BEASAIN



Goierri

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 607 530 424

647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Iñaki Murua

7. Errezeta: Karamelo tarta
Aholkua: Haurren garapena
jaiotzetik urtebetera

8. Kate motzean: Elena Ruano

9. Erreportajea: Inauteriak Goierrin

14. Elkarrizketa: Iñaki Telleria
perkusionista

18. Erreportajea: Euskara ikasleak
familiarian

22. Mundutarrak Goierrin: Matias
Garcia Bernaus argentinarra

24. Debaldeko iragarkiak

26. Foto zaharra: Idiazabalgo
dantzariak



Goierritarra Goierri-kanpo
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 12 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 24 euro

Europaz kanpo: urtean 36 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

GOIERRIKO UDALAK

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal,
Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutilloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegui,
Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain



Gipuzkoako Foru Aldundia



Iñaki Murua

Txikiteoa,
gazte lanean
basi
berriarentzat,
sozializazio
bidean atea
irekitzea zen.
14 urteko
pintxea eta
bere lankide
helduak, batera
joaten ziren
lanaldia amaitu
ondorengo
tragoak
bartzera.

Txikiteoa

Gure adinekoentzat eta gorakoen-tzat, fenomeno soziala eta aspaldi-ko ohituraren ildoari jarraitzea izan zen. Bazituen alde nabarmen positiboak eta baita bestelakoak ere. Bazituen ala badiu? Zalantzan nago iraganaz ala orainaz ari behar dudán, baina garbi daukat gero-az ezingo naizela ari.

Txikiteoa, gazte lanean hasi berriaren-tzat, sozializazio bidean atea irekitzea zen. 14 urteko pintxea eta bere lankide heldu esperientziadunak, batera joaten zi-ren lanaldia amaitu ondorengo tragoak hartzera. Lagun berriak eta beren izaera ezagutzeko klase partikularrak han har-tzen zituen, baita kaskarrekoen bat edo beste ere adierazpenetan edo hizkeran deskuidatzen bazen. Laster ohartuko zen zein hitz erabil zitzakeen eta nola eta zeintzuk ez ziren zilegi. Konturatuko zen, egun asko baino lehen, nork ordaintzen zuen txintxo txanda zegokionean eta nori ahazten zitzaion, besteek txakurra bota ezean. Hala ere, bakarren bat behar omen du ardi beltzarena egiteko eta, ez harritu ordaindu gabe joaten zenen bat topatzea.

Elkarrizketak gai eta era desberdin ugaritakoak izaten ziren: soldataren ingu-ruko kontuak, lana, arriskuak eta hauek saihesteko moduei buruzkoak, bizitzaren filosofiazkoak, etxebizitza erosi eta ordain ezinaren nekeak, politikaz eztabaidak eta ikuspegi kontrajarriak, informazio kultu-rala eta hainbat ohitura / usadioren trans-misioa, gizarteko arazo astunen jorrake-ta... errealitatearen ispilu berbera zuen aurrean, ume moko hark eta gainontze-koek.

Lankide multzo soila ez ezik koadrila ere bazen. Egutero norbait arduratuko zen erronda eskatzen besteentzat; ezagu-nen bat bakarrik bazetorren, taldeko nor-baitek gonbidatuko zuen eta ez zen ta-bernan bakarrik geratuko sekula; koadrila utzi eta etxera zihoanak ordainduko zuen aldegiterrako azken tragoa; tabernariekin ere, eguneroko hartu emanaren ondorio, tratua asko estutzen zen eta, baziren ta-bernariak, halako edo bestelako koadrila zein tabernatan egongo zen jakinik, pro-

pio irteten zirenak erronda bat gonbida-tzera.

Askotan, ibilaldi eta hizketaldi hauetan egosten ziren herriko jaietako egitarauan egin zitezkeen hainbat ekintza proposa-men edo sortzen ziren zenbait irteera au-dera edo arazo hau edo lan hura burutze-ko talde berriak edo...

Ez zuten ordea herritar denen partai-detzarik izaten erronda hauetan, egia ai-tortzekotan, matxista totalak zirela esan behar, izan ere, emakumeek ezin zuten parte hartu. Noski, fabrikako langileen koadrilak ziren eta nor zebilen enpresa batean lanean orduan? Gizonezkoa. Ema-kumezkoa etxe zuloan txikiteoan zebile-naren zain askotan eta harentzako otor-dua prestatzen. Gainera, emakumea ta-bernan ikustea oso gaizki ikusia zegoen: jesus, gizon artean zurrutean! Apaizak ja-kingo balu, kitto haren izen ona eta tajuz-ko ezkontzarako aukerak. Asko moduzko apaizak, igual sermoian zapla izena bota, gainera.

Bestalde, eguneroko jardunak -eta egunean bitan igual- osasunari ondorio kaltégarri askoak ekartzen zizkion. Ha-maika geratu da bidean, alkoholismoaren zama astuna eraman ezinik eta, ez norbe-ra bakarrik, baita familia osoak desegin ere. Goxoaren goxoz, mama goxoaren mikatzak itotako pranko ezagutu dugu, non eta zertan ibili den arrastoak aurpegi-ko mapan ederki nabari zaizkiola, azken urteak arrastaka, tabernako ateko koxkan hanka pasa ezinik, askotan "pasa" izana-ren seinale.

Azken dinosauroak Yucatanen (Mexi-ko) eroritako meteorito batek akabatu omen zituen. Orain, orduan haina hauts harrotu gabe, hots atera barik, erlazioak eten eta garraztu dira, telebistari esker.

Duela gutxira arte, egunean, batez beste 20 minutu egiten omen zen parre, gaur 3 bakarrik. Eta askotan, bakar baka-rrik, hori ere.

Lantokietan afariak eta parrandak an-tolatzea, lana egitea bera baino ere zaila-go omen da. Aldaketa, aurrerapena. Pe-nak aurrera!

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Bai, bai, benetan... egur ikatza! (II)

Azken artikuluan egur ikatzaren haritik hamaika gai ukitu ahal ziren, guztiak zehar baina. Eta egia esan, zaila da ingurugiroan oinarritzen den orri batean, arte-lanezko erregai miresgarri baten bitartez, egun dugun "bizi kalitate" baten norabide okerra (ez iraungarri bat) isladatzea.

Bertan, gure bizi ohituraren aldaketekin, egur ikatzaren baztertzarekin, besteak beste, etxearen eta zehazkiago sukaldearen (su-aldearen) funtzio aldaketa adierazten zen... eta sendi tartekoen harreman aldaketa ondoriozta zitekeen.

Hain zuzen beheko suaregotearen zenekora noa, sukalde giro horri eutsi nahi diot. Tamalez, egungo sukaldeetan hobekuntza asko garatu arren, edo garatuagatik, sukalde giro - muina galdu dute. Oraindik, aintzinakoek zer erakutsia badutela nabarmena da. Ea argitasunik ematen dugun...

Zer eskaintzen zuen bada orduko suak? Suaren argia sakratu zenekoa, garberdinez egun gurean egon zitekeena... misterioz bete, begirada guztiak biltzen zituena, nor berak egiten dituen hausnarren aholkulari zena, bakezale, lasaigarri... emeki-emeki, haize barrearen dantza lagun. Gai arazlea.

Lehen tximini luze baten oinarrian izaten zen beheko sua, bertan ematen zen jatordua, hitz ordua, gaueko lana (josi, artoa aletu...), otoi-tza.

Suaren bueltan, beroa, bai suarena, bai famili artekoa, bai lagunartekoa, hurbil bata bestearengandik,

**Tamalez,
egungo
sukaldeetan
hobekuntza
asko garatu
arren, edo
garatuagatik,
sukalde giro
muina galdu
dute. Oraindik
aintzinakoek
zer erakutsia
badutela
nabarmena da.**

denak usain berdinez horniturik nahitaez. Laguntasuna beti ere. Suaren bueltan, argia, bai ikusteko, bai lan egiteko, inspiratzeko, iluntasunean erreferentzi, hitzen zentzu laguntzaile. Gertutasun eta bilkura suaren altzoan, atona eta amona, atte eta ama, anai eta arreba borobilean suarekin bat, lehena eta geroaren eraztuna itxiaz, sua giltzarri.

Horiek ziren eguzkia ezkutatutako orduko, lanaren

amaierarekin bat, egunaren une gozoak, suak, eguzki txikia bailitzan, ordezkatzeko zituena.

Orain berriz, norberak ikus dezake erraz asko berean. Beroak ez du usainik, sukaldea etxeko lekuri hotzeta da, kalefakziorik ez duen gela bakarra alegia, eta askotan jan ere ez da egiten bertan. Ez da lagunen, sendi tartekoen topaleku. Hori egongela izaten da horrelakorik ematea suertatzen bada. Eta afalostean, eguneko lanak amaiturik direnean, lerro bat eginez, telebista parean, milioika elektroiek (e -) sortutako argiari begira, honek zer emango zain. Batak bestearen berri jakin gabe, justu-justuan entzun erantzunik ondo lo egin batekin agurtuz (begiak tinko telebistan).

Areago joanez, etxebizitzako sendi tarte kopurua, txikiagoa izanik, atte, ama eta norbera direnean, edo senar-emazteak direnetan, atona edo amona, etxez etxe txandakatuz doan hura (gure izanaren erro), besterik ez direnean, komunikazioa inoiz baino argiago eta errazago izan beharko lukeen honetan... "atona isilik!, telebista ikusten ari gara" entzutea... zer pentsatua eman behar luke. Eta hori semeek nor bere gelako telebista edo ordenagailuari begira ez daudenetan. Hau al da bizi kalitatea?

Goxotasun eta argi falta dago nabarmen, gizakiaren espiritura isladatzen den argiarena beti ere, egur ikatzez hornitzen den suarena...

Manex Aranburu

JAKIN BEHARREKOA

AHTrekin zer? Asteburu honetan Abiadura Handiko Trenaren aurkako plataformaek eginiko bizikleta protestak talde desberdinetakoen partaidetza eta koordinazioa nabarmen adierazten zuten. Umorea eta gogoa, beste iritziak adierazteko, manifestatua izateko, hor ibili dabilta. Harritzekoa zera da, AHTren proiektuarekin, alde dauden poza edo haserrea ez isladatzea. Herritar talde jakinik ba al da benetan hori eskatu duenik?, denbora zerama-na horrelakoren demandan? Benetan artalde bat baino eraman errazagoak gabela, odolik gabeko gizartea, alegia. Jakin nahi nuke kontrari egon gabe ere, alde ez dauden kopurua! Alkateok! gaia ez dadila politizatu, ez kontra egiteko estrategian, ez alderdi kidetzan isilik joateko.

Hondakinen errauskailuekin zer? To! Goierrin ez dela jarriko eta lasai egoteak ezer gutxi balio digula jakinarazi nahi dizuegu. Gogoratu horrelako tximinitzar batek duen garaiera eta radio eragina etxe ataria gainditzekoa badela. Arazoa hor dago eta aurrera doa. Ez da bakarrik gertuagoenekoekin solidaritatea. Ez da bakarrik errauskailuaren aurka egotea. Jarrera kontua da. "Arazoari irtenbiderik ekartzen ez diona, arazoaren parte da", alegia, zu zeu zara arazoaren parte. Hasi bada zure urrats ekologikoa murriztetik, saiatu hondakinik gutxienez sortzen eta eskatu herritarrei beste horrenbeste...



Iraunkortasunaren 12 irizpideak:

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gainditzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarrizko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziarren hazkundera.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoen aurrean.

10. Bizi-kalitate egokia bermatzea

Gizarte guztietan helburua bizi kalitate maila ona lortzea da. Iraunkortasunaren ikuspuntutik, helburua, bizi kalitate egokia mundu guztia lortzea da; eta honek ondorengo bizi-kalitatean eragirik ez izatea.

Izan ere, lehen mundu deituriko honetan bizi kalitatea gehiegizko kontsumo-arekin lotu da; gure kontsumo ohitura honek ingurumenean eta garapen bidean dauden herrialdetako biztanleengan duen eragina kontutan hartu gabe. XX. mendaren azken laurdenean kontsumoak izugarri egin du gora herrialde industrializatuetan, Afrikan, maila ertaineko etxeetan %20 gutxiago kontsumitzen den bitartean.

Nazio Batuek argitaratutako Giza Garapenari buruzko urteroko txostenean dioen bezala, kontsumo neurrigabeak areagotu egiten du aberatsen eta pobreen arteko bizi mailaren aldea; hau da, gizarte global hau kontsumo gizartea da, baina beste alor askotan bezala, gauzak ez dira berdinak guztiontzat, eta ezberdintasunak areagotzen ari dira.

Ingurumenaz hitzegitean, Lurra populaturik dagoela konturatu behar gara eta ingurumena hondatzeak gizakiongan eragina duela, bai oraingoengan baita etorkizunekoengan ere. Eragin handiagoa jasaten dute ingurumenaren hondamendian gutxien parte hartzen dutenek.

Iraunkortasunaren ikuspegitik, gure bizi kalitatea maila bermatu behar da, betiere beste herrialdetakoen eta ondorengo bizi-kalitate mailan eragin gabe



Ba al dakizu...?

- ✓ 1.000 milioitik gora pertsonak ez dauka edateko urik.
- ✓ Europan kontsumoaren igoera %2,3koa izan da azken 25 urteotan. Asia hegoaldean %6.1ekoa. Afrikan %20an jaitsti da

kontsumoa epe berdinean.

- ✓ Herri industrializatuek (munduko biztanleriaren %15ak), energiaren %70, metalen %75, zuraren %85 eta elikagaien %60 kontsumitzen dituzte.

- ✓ Europako biztanle bakoitzak 1,9 Tona CO₂ igortzen ditu atmosferara. Ipar Amerikako herri-tarrek, berriz, 5 Tona. Planetako biztanle bakoitzak, urtean, gehienez tona erdi CO₂ igor lezakeela kalkulatu da.



ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

o s k a r b i
o i n e t a k o a k



Tel. 943 88 41 04
Kale Nagusia 34
BEASAIN

Tel. 943 88 19 44
Kale Nagusia 34
ORDIZIA

Tel. 943 72 19 58
Sekundino Esnaola, 8
ZUMARRAGA

SUKALDEAN

Karameko tarta



Margari Arruti
Zepai jatetxea
Idiazabal

Osagaiak:

- 300 gr. azukre.
- Hostorea edo hojaldrea
- Krema pastelera
- Intxaurrak

Zartagin txiki batean azukrea ur pixka batekin jarri karamelo egiteko. Eginda dagoenean intxaurrak nahastu.

Ondoren karamelo hostorearekin estali eta gainean krema pastelera jarri. Gainetik, berriz ere, hostorearekin estali. Hau dena

karamelo berao dagoela egin behar da, su eztian.

Ondoren dena labeko bandeja batetara irauli eta labean sartu 180°C-tan. Ondo gorritu arte eduki.

Tarta hau ondo hoztutakoan zerbitzatu behar da, karamelo ez desegin edo zabaltzeko.

Haurraren garapena jaiotzetik urtebetera

AHOLKUA

Guraso aunitz kezkatuak ageri dira, ez baitakite bera seme-alabaren garapena "egokia" den edo ez (batez ere lehendabizikoa baldin bada). Lehenik erran behar da haur bakoitzak bere erritmoa daukala, epeak malguak dira eta haur batek bertzeak baino lehenago beteko ditu epe horiek. Horregatik, ez da kezkatu behar gure seme-alaba 12 hilabeterekin oraindik ez bada ibiltzen eta haurtzaindegian daukan laguna oinez badabil. Dena den, haurraren bilakaera orokorrean honakoa izanen da (0tik 12 hilabetera):

6 astetik 3 hilabetera:

- Tripa gainean etzanez gero burua altxatzen du.
- Irrifar egiten du.
- Mugitzen den pertsona segitzen du begiradarekin.

- Buruz beheiti dagoenean bularra altxatzen du.
- Ez du gorputza bueltatzen.

3-4 hilabete artean:

- Bera bakarrik altxatzen da besoen laguntzaz.
- Burua bueltatzen ahal du.
- Burua xuxen mantentzen du.
- Irrifar egin eta irrifarrak itzultzen ditu.
- Jostailuak erabiltzen hasten da.

4-5 hilabete artean:

- Gauza txikiak ongi eta indarrez hartzen ditu.
- Irri-argarak egiten ditu.
- Besoak luzatzen ditu gauzak hartzeko.
- Mugitzen diren gauzak eta pertsonak begiradarekin segitzeko burua itzultzen du.
- Buruz beheiti etzanda da-

goenenan bakarrik altxatzen da.

5etik 8 hilabetera:

- Bizkarka dagoenean buelta eman eta sabel gainean etzaten da.
- Laguntzarekin esertzen ahal da.
- Ezezagunak eta ezagunak edo familiakoak bereizten ditu.
- 8 hilabetetan laguntzarik gabe esertzen da.
- Ezezagunekin beldurtzen hasten da.
- Hitzen bat lertzen du. Badaki zer esan nahi duen.

8tik 12 hilabetera:

- Sendo esertzen da, inolako euskarririk gabe.
- Lau hankatan eta arrastaka ibiltzen da.
- Oinez ibiltzen hasten ahal da.
- Soinu batzuk eta hitz solteak erraten ditu.



Rakel Amigo
Goiklinik

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN



“Inauterietan dendan bertan mozorrotzen gara giroa alaitzeko”

Zein da modan dagoen mozorroa?

Ez dago mozorro jakinik modan. Gainera, aukera oso zabala dago aurten; 200 mozorro inguru ditugu helduentzat. Haurrentzat, berriz, 100 inguru.

Geroz eta gehiago mozorrotzen al da jendea?

Bai, mozorrotzeko ohitura zabaltzen ari da.

Bezeraok zer erosten du: mozorro osoak ala elementu desberdinak?

Gehienek mozorro osoak eramaten dituzte. Halere, badi-tugu alkandorak, txalekoak...

Jendea azken orduan etortzen al da erostera?

Talde handiak kontutan hartzen dute denbora. Halere, badira azken unean etortzen direnak ere; horiek, ordea, banaka etortzen dira gehienetan.

Ze jende mota mozorrotzen da normalean?

Haurrak, gazteak eta helduak mozorrotzen dira. Maiz familia osoa batera mozorrotzen da.

Mozorrotzeko orduan, eguraldiak ba al du eraginik?

Gazteek ez diote eguraldiari jaramonik egiten, gustokoen duten mozorroa eramaten dute. Helduek eta haurrek, be-

rriz, mozorro beroak nahi izaten dituzte.

Bezerao ideia konkretu batekin etortzen al da?

Inolaz ere ez. Gehienetan ez dute zertaz mozorrotu jakiten. Horregatik aukeraketa prozesua luzea eta zaila izaten da.

Urtean zehar ere, badirudi jendea geroz eta gehiago mozorrotzen dela.

Herriko jaietan beti mozorro egun bat izaten da eta jendeak parte hartzen du.

Despedidak ere modan daude.

Jendeak xehetasun guztiak kontutan hartuta prestatzen ditu. Modan daudela esan daiteke.

Despedidetarako zer eskatzen du jendeak?

Mozorro osoak eramaten dituzte. Osagaiak ere hartzen dituzte, oso ausartak izan ohi dira.

Zer da eskatu dizuen gauzarik arraroena?

Oraingoz ez gaituzte ezustean harrapatu. Guk geuk eskaintzen ditugu ideia berezi eta berritzaileak.

Zuk, pertsonalki, gustoko al duzu mozorrotzea?

Bai, noski. Inauterietan dendan bertan mozorrotzen gara giroa alaitzeko.

Zein mozorro prestatu behar duzu aurten?

Oraindik ez dugu erabaki. Baina, laster aukeratu behar dugu.

EUSKARA HOBETU EDOTA ERABILI NAHI BADUZU

Otsailetik ekainera bitartean

MINTZALAGUNA, HIZKETAN ASKATZEKO

- ◆ Astean behin ordubeteko mintza-saioa.
- ◆ Bi euskadunberri euskaldun zahar batekin bilduko dira euskaraz aritzeko.

IRAKURZALETASUNA

- ◆ Euskarazko eleberririk irakurriko dira
- ◆ Hilabete behin bi orduko saioa irakurritako liburuaren inguruan tutore batek zuzendua.

INTERNET BIDEZ EUSKARA IKASTEKO SISTEMA

- ◆ Multimedia sistema: etxetik, euskaltegitik edo KZgunetik
- ◆ Astean ordubeteko mintza-saioa irakaslearekin.
- ◆ Astean ordu erdiko tutoritza bakarka (orientazio metodologikoa, ikasprozesuaren jarraipena...)



UDAL

EUSKALTEGIA

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA
Loinazko San Martin plaza, z/g BEASAIN
Tel.: 943 028100 Zuzendaritza@beasain.net

Goierriko inauteriak gogoan



*Errepublika
garaian galdu
ziren baserri
giroko inauteriak*

Gaur egun Goierri inauteriek tradizioz ez badute ere, gerra aurretik, hainbat herritan ospatzen ziren baserri giroko inauteriak, gehienetan puska eskeari lotuak. Antzekotasunik izan bazuten ere, herri bakoitzak bere berezitasuna zuen.

Beasaingo Aurtzaka dantza taldeak prestatuta duen azkeneko dantza ikuskizunean ('Goierri'), tarte berezia eskaini die Goierriko inauteriei. Aurtzakaren ikuskizuna oinarri hartuta, galdutako inauterien izpiritua biltzen saiatu gara Goierritarra aldizkarian.

GOIKLINIK
osasun zentroa

- Dietetika eta NutrizioaTel.: 636 21 82 40
- Psikologia eta Psikomotrizitatea ..Tel.: 656 76 10 40
- Pedagogia eta LogopediaTel.: 616 24 15 26
- PodologiaTel.: 635 00 66 30

Andrea Mari, 11 - 2. A (Notaria zaharra) - BEASAIN

Jarraian, Goierriko hainbat herritan bildutako inauterien testigantzak dituzue.

Segurako hartza

Duela 2 urte segurarrekin berreskuratu zuten inauteria da. Hartza da protagonista. Orain arte hartza jantzia Iparraldetik ekartzen bazuten ere, aurten segurarrekin, euren jantzia egin dute eta tradizioak dioten bezala,

hartza beltza izango da.

Joseba Telleria Goierri-tarrako Segurako kronistak bere garaian idatzitakoaren arabera, "Francoren erregimenak inauteri ospakizunak debekatu ondoren, beste hainbat herritan bezala, Seguran ere festa hau egiteari utzi egin zitzaion. Segurako karnabala ezagutu zuten herritarrak 70 urte-tik gorakoak dira. Herriko

helduenen memorian dau-de hartzaen irteerak".

"Festa ezagutu zutenen-gandik jasotakoaren arabera, herritar bat ardilarruz es-talirik hartzez moztortzen zen. Gerritik soka edo kate batez loturik ibiltzen zuen kalez kale hartazain batek. Hartza, basatia izanik, jendea erasotu egiten zuen eta hartazainak eusten zion nolabait, sokaz eta makilaz.

Protagonista nagusiekin batera, jorrai dantzariak txistulariekin herriko leku ezber-dinetan 'zahagi dantza' egi-ten zuten. Akordeoia joz eta abestuz, kantu eskea ere bai. Leiho eta balkoiak ser-pentina eta abarrez dekora-tu ohi ziren. Festa egun handia izaten zenez, ingu-ruko herrietatik jende asko etorri ohi zen. Jaia, inauteri asteartean egiten zen".

Aurtzaka dantza taldearen ikuskizuna

2004. urtean, 25. urteurrena ospatzeko asmoz, Beasaingo Aurtzaka dantza taldeak prestatu duen dantza-ikuskizuna da 'Goierri'. Azken hiru urteetan Goierri eskualdeko dantza eta folklore-ondarea biltzeko egin den lanaren ondorioa da bertan eskaintzen dena. Hala jaso dituzte, bai gaur egun gure eskualdeko tradizioan bizirik di-rauten dantzak (ezpata-dantzak, sokadantza...), bai orain gutxi galdutakoak (erromeria), nola aspaldi batean desagertu eta honetarako propio berreskuratu ditugun haiek (inauteria, dantza-jolasak...). Segurako San Migel eta San Nikolas, Loinazko ezpata-dantzari eta banderazale, Ordi-ziako santanazale, Zaldibiko soinu-zahar eta zortziko, Ataungo Txelemmon, Otsailko eta Mo-zorro, Idiazabalgo Mozorro-zuri eta Zatar, Muti-loako Ardilarru, Segurako Hartza eta jorrai-dan-tzari, garai batean dantza-librean egiteko mo-dua... denak eta hainbat gehiago goza ditzake-zue ikuskizun honetan, Goierriko dantza-onda-rea ardatz dutela.

Beasainen eta Goierri guztian dantzari izan diren guztiei eta dantza-ondarea gordetzen eta mantentzen lagundu duten guztiei eskainitako omenaldia eta eskertza izan nahi du ikuskizun honek.

Inauteriek tarte berezia

Goierriko baserri giroko inauteriak Errepublika garaian ezkutatu zirela esan dezakegu. Hala ere, non, noiz eta nola ospatzen ziren jakin ahal izateko hainbat zantzu eskaintzen dizkiguten testigantzak eta aipamenak badira. Bildutako in-formazio guzti horrek ahalbidetu du inauterien berreraiketa hau, aberatsa inondik ere.

Ataungo Otsailko-eskea eta Mozorro-txuriak, Segurako Hartza eta hartza-zaina, Mutiloako Ar-dilarruak, Idiazabalgo Zatarrak eta Mozorro-zu-riak, Jorrai-dantzariak... jarraian egingo diegu guztiei errepasoa.



Duela 2 urte segurarekin berreskuratu zuten Segurako inauteria. Hartza da protagonista.

Ataungo inauteria, Otsabilko eguna:

Otsabilko eguna, Ataunen Ostegun Gizen eguna. Juan Garmendia Larrañagak 'Neguko Festak' liburuan bildutakoaren arabera, "J.M. Barandiaranek dioenez, honek abestu ohi zuten eguneko puska-biltzean:

Otsabilko, otsabilko

Ni basoa jün da

Otso aundi bat ekarriko,
ekarriko

Nei lukanka mutur bat

Emate'ez diñai,

Tripatik aurrea

Burruntzea sartuko,
sartuko.

Maximo Aierbe 'Ataungo Kantu zaharrak' liburuan, eske kanta horren xehetasun gehiago biltzen ditu. "Eske kanta (?) zahar hau garizuman sartu aurreko ostegunean (ostegun gizen) kantatzen zen. Oraindik galtza motxetan ibiltzen ziren mutiko kozkorak atez ate ibiltzen ziren eskean. Kanta honen usadioa duela 25-30 bat urte galdu zen. Eginahalak egin ditudan arren, ez dut inon aurkitu gure Otsailkoren antzekorik. Badira, bai, Ostegun gizenek usario hau izan duten herriak, eta gainera Ataunen bezala, mutiko kozkorak ibiltzen ziren eskean, baina gurearen antzekorik ez dut aurkitu". Aierbe ataundarrak Otsailko kantuaren beste aldaera bat bildu du:

Otsaillko, Otsaillko

Ni basoa junda

Otso aundiat ekarriko

Lukaika mutur bat

emateztianai

Ateek eta leiok ausiko! Ausiko!

Mutiloan, antzeko eske kanta abesten zuten, Kandelario egunez. Hauek ere puska-biltzeko erabiltzen zuten abestia:

Andre Mari Otsailko,
otsailko

Nik otso bizia ilko,

Okela bat eta okela bi,

Nere burruntzia bete bedi.



Zaldibiako inauterien berririk jaso ez badugu ere, Martin Ibargunerenek utzitako argazkian ikus daitekeenez, 1930ean ospatu zituzten inauteriak.

Inauterien tradizioa

Inauteriak garizuman sartu aurreko hiru egunetan egiten diren ospakizunak dira. "Orain dela urte batzuk arte, baraua hasi aurreko tripa-festa antzera iritsi zaizkigu", Juan Garmendia Larrañagak 'Neguko Festak' liburuan azaltzen duen bezala.

Eskea izaten zen baserri giroko inauterien oinarria. Baserriz baserri ibiltzen ziren, soinujolearekin, dantzari, mozturoririk eta aur-

pegia estalirik. Han eta hemen bildutako jakiekin, mahaiaren bueltan biltzen ziren. Leku gehienetan, oirlaskoak ematen omen zizkien. Txerriak ere bai. Ondoren, asko eta asko, Tolosara joan ohi ziren.

Idiazabalgo Urtsuaran auzoan adibidez, Garmendiak bildutakoaren arabera, "inauterietan puska-biltze ohitura egiten zuten, saritzat zerri hanka eta belarriak jasotzen zutelarik. Ge-

ro, ohizko afarian, irin eta arrautzetan bilduta jaten ziztuzten, eta postretarako torradak eta aiezko pastelak. Mahaian ez zuten izaten ardo eta pattar faltarik".

Inauterietan torradak jateko tradizioa geure garaietaraino iritsia da. Juan Garmendiak dioenez, Euskal Herriak kanpoko ohitura da torradena.

Jantziei dagokienez, gehienek, arropa zuria eramaten zuten.

Idiazabalgo inauteria: Mozorro zuriak eta zatarrak

Idiazabalen, inauterietako asteartean, hau da, 'Astearteiñate' egunez ospatzen ziren Inauteriak. Juan Garmendia Larrañagaren arabera, "Mozorro zuriak eta moztorro zatarrak ateratzen ziren talde banatan, eta egun osoa eskean ematen zuten etxez etxe eta baserri baserri, ate aurrean suetoan

dantza eginez. Moztorro zuriak apain eta dotore jantzita. Moztorro zatarrak emakumez jantzita. Zatar hitzak ez zuen itsusi esan nahi; makila zeramaten eskuan eta makilaren muturrean trazu zaharrak, zatarra ize-nekoak. Hortik zetorkien".

"Taldea bakoitza bere aldetik ibiltzen zen, soinujolearekin batera; "gazteren bat saskia edo otarra eramateaz arduratzen zen, emandako arraultz eta txorixoak

jasotzeko. Bildutakoarekin afaria egiten zen, gehienetan talde bakoitzak bere aldetik. Inauteriak gauerdia arte irauten zuen eta denak batera dantzatzen zuten. Urtsuaran auzoko gazteak ere moztorro zuten ziren".

"Eskean bildutakoarekin 'moztorro zuriak' eta 'moztorro zatarrak' afaltzera biltzen ziren, gehienetan talde bakoitza bere aldetik. Ondoren, gauerdia arte inauteriak plazan jarraitzen

zuen. Elkarrekin dantza egiten zuten 'mozorro zatarrek' eta 'mozorro zuriek'."

Mutiloko inauteria

Mutiloako gazteak ere mozorrotzen ziren. Ostegun Gizenez hasten zituzten inauteriak, igandean, astelehenean eta asteartean jarraitzeko. Juan Garmendia Larrañagaren arabera, "mozorroak ardilarruz estalita ibiltzen ziren, bihurrikeriak egiten ahal zuten guztietan. Astearteinategi mozorro zuria, ia denak Idiazabalgoak, iristen ziren, esanda bezala jantzita. Hauek mutil gazteak izan ohi ziren, hemen ere eskeari ekiten zioten eta diruz, txorixo eta arraultzez saritzen zituzten. Filarmonikaren soinuaz suetoan dantza eginez, festa giroa indartzen zuten Mutiloan. Mozorro zuria Errepublikara garaian izkutatatu ziren".



Joxemiel Barandiaranen deskribapena

Aurtzaka dantza taldekoei ikuskizunean, inauterien atalean, Joxemiel Barandiaranen hitzetan oinarritutako jantziak egin dituzte. Hona hemen, ataundarraren deskripzioa. Hitzez hitz hartua dago, eta gaztelaraz. "Visten, o vestian, en la región de Ataun, principios de este siglo, pantalón blanco muy ribeteado y con figuras de manos humanas encima de las rodillas, camisa blanca, ceñidor rojo, pañuelos de seda al cuello y otro de hilo blanco que cubría la cara, y alpargatas blancas en los pies. Por su vestimenta y disfraz, éstos recibían el nombre de mozorrotxuri 'enmascarado blanco'".



Aseguru konreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosgi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

IÑABE, S.L.

IGELTSEKITZA OROKORRA

Fatxaden berrikuntza
Egiturak (egurra - hormigoia)

Tel.: 943 883 829 - 943 882 875 - 649 813 670
Imaz-enea etxea - ZALDIBIA - itormujika@terra.es

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

MULTIESKAINTZAK



Lauraren BONARDI
armazoiak
orain

35€
bakarrik!!



Monikaren BONARDI
"AIRE" armazoiak
orain

60€
bakarrik



Albertoren kristal
progresiboak
orain

130€-tik
aurrera bakarrik!!

MULTIOPTICAS

LEHENAK ZERBITZU OPTIKOETAN

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR


Esmalteria Plaza
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

Iñaki Telleria perkusionista idiazabaldarra



*Euskadiko Gazte
Orkestrarekin
Txinan izan da*

Txistulari familiakoa da Iñaki Telleria idiazabaldarra. Herriko txistulari taldean atabala jotzen du 9 urtetatik. 20 urterekin, perkusioari heldu zion. Baita ondo heldu ere! Lana utzi eta eskusiboki perkusio ikasketei burubelarri ekin zien. Ikasketak amaitzeko 3 urte falta zaiz-

kionean, Euskadiko Gazte Orkestran (EGO) perkusionista titular postua lortu du duela 4 urtetik. EGOrakin Txinatik etorri berritan harrapatu genuen idiazabaldarra. Txinako esperientzia kontatzeaz gain, perkusioaren mundua gehixeago ezagutzen ere lagundu digu Telleriak.



INSTALATZAILE OFIZIALA
laza LLAZAPLUS ZENTROA
T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA

Txistulari taldean atabalarekin hasi zinen eta perkusioarekin, berriz, 20 urterekin hasi zinen. Nola izan zen prozesua?

Jende gehiena, txikitatik hasi izan da perkusioarekin baina ni oso berandu hasi naiz. Umetatik txistua eta pianoa jotzen nituen, aitarekin, eta taldean atabalaria falta zela eta ni hasi nintzen. Gero bateria jotzen hasi nintzen. Nire ikasketak egin eta lanean hasi nintzen. Baina ezagutu nuen, gerora nire perkusio ikaslea izango zen Jexux Mari Garmendia. Nik beti hobby bezala eduki izan dut perkusioa eta Garmendiak animatu ninduen ikasten hastera eta probatzera. 20 urterekin nola hasiko ote nintzen ba galdetzen nion. Hala hasi nintzen. Bigarren urtean, lanean, 2 urteko eszedentzia eskatu nuen eta perkusioari heldu nion buru belarri. Eszedentzia bukatu zitzaizkidan, lana utzi egin nuen. Bost urtetan erdi mailako karrera bukatu nuen eta goi mailako kontserbatorioan sartzeko probak egin nituen. Musiken hartu ninduten eta guztia uztea erabaki nuen.

Zer da Musikene?

Euskal Herriko Goi mailako Musika kontserbatorioa da. Duela hiru urte sortu zen eta Estatu mailan puntanetakoa da. Musiken sartzeko aukera izan dut eta irakasle onak ditugu. Orain arte, horrelako irakasleekin lan egiteko aukerarik ez zegoen. Perkusio irakaslea adibidez, Europako edo munduko onenetako bat daukat. Euskal Herrian urte gutxian alde handia egongo da. Musikari asko irtingo da.



Euskadiko Gazte Orkestrako perkusionista titularra zara. Noiztik zabil-tza EGOn?

Duela 4 urte sartu nintzen. Berez 27 urtera artekoentzako da eta gutxi gelditzen zait, 26 baititut. Batzuk hasi gara orkestra profesionalean jotzen eta beste batzuei txanda uzteko garaia iristen ari zaigu.

EGOn sartzeko zein prozesu jarraitu behar izaten da?

Aste Santuan probak egoten dira EGOn sartu ahal izateko. Euskal herritarra izatea, 27 urtetik behera izatea eta ikasketetan maila ertaina izatea dira baldintzak.

EGOn sartzea saria izan-go da musikari gazteen-tzat.

Egia esanda, bai. Bilkureta-
ra etortzen diren irakaslee-

Idiazabalgo atabalaria

Odolean dakar musika Iñaki Telleria idiazabal-darrak. Aitona txistularia zuen, aita txistuaz gain pianoa ere jotzen du, anai ere txistularia da. Orkestrek eta ikasketek oraindik ere uzten die tarte Iñaki Telleriari, herriko txistulari taldean aritzeko, aitaren eta anaiaren aldamenean. Aurten ere egingo du tarte San Blas jaie-tan.

Dena den, gustura dago idiazabal-darra herriko atabari tituluarekin. "Etxean bizi naizen bitartean hala jarraitu beharko dut behintzat. Baina nik uste dut ona dela jarraitzea. Gora igo-tzen hasten zarenean, askotan txolinkeria asko izaten da. Orkestra Sinfonikoak beti fama hori eduki du, elitismo asko dagoela eta horrek askotan perspektiba galdu arazten du, zer eta zertarako egiten ari zaren. Eta frustrazio batean sartzeko arriskua egoten da. Beraz, beti ibili za-ren gauza bat mantentzeak, askotan, gehiago baloratu arazten dizu sortzen zaizkizun auke-rak. 9 urterekin hasi nintzen aitarekin herriko txistulari taldean, oraindik ere jarraitzen dut eta gainera, sekula pentsatuko ez nuen zerbait lor-tu dut, Orkestra Sinfonikoan jotzea. Musikari baten helburu gorena hain zuzen ere".

kin lana egitea handia iza-
ten da. Normalean, Europa
mailan onenetakoak diren

irakasleak etortzen dira.
Oholtzan egoten ere ikasten
da, lotsa galtzen da, ardurak



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

hartzen ikasten da...

Gazte Orkestran pazientzia gehiagorekin hartzen gaituzte. Baina orkestra profesionalean, oso zorrotzak eta gogorak dira. Oso ezberdina da. Orkestra profesionalarekin auditorioan jotzea ere oso ezberdina da. Inpresionatu egiten du. Beraz, hobe da EGOrakin aurretik esperientzia izatea. Ingurua gutxienez, ezaguna zaizu.

Bilkuretan zer egiten duzue?

Urtean bi bilkura egiten ditugu, gabonetan eta udan. Lehenengo astean irakasleak etortzen dira eta atalka aritzen gara. Bakarlarri papeira nork egin behar duen, perkusionisten kasuan, instrumentu bakoitza nork jo behar duen... erabakitzen da. Atalak elkartzen joaten gara pixkanaka eta ondoren, zuzendari artistikoa etortzen da.

Perkusiotik bizitzerik ba al dago?

Gehienak ikasten eta lanean ari gara. Nik Ordiziako Musika Eskolan ematen ditut eskolak, Nafarroako Orkestran ere parte hartzen dut... Pixkanaka bidea irekitzen ari naiz poliki-poliki. Norberaren proiektuak ere hor daude. Asko daukagu ikasteko, denbora asko behar da ikasteko... baina aldi berean lana egin beharra dago. Plaza bat lortzea hemen inguruko orkestra batean, oso beltza dago.

"Sorozabalen Gernika zirraragarria da"

Hainbeste ikasi behar al da danborra jotzeko?

Askok egiten duten galdera da. 13 urteko karrera egin behar da. Pentsa biolin-jole batek zenbat ordu pasatu behar dituen. Ba, perkusioan, marinba, bibrafonoa, lira, dinbalak, kaja... daude. Biolinistei exijitzen diena, guri, instrumentu bakoitzean eskatzen zaigu. Adibidez, bateria jotzen duenak, bost gauza batera egiten jakin behar du.

Denetan zailena zein da?

Instrumentu bakoitzak dauka bere zailtasunak. Baina niretzat, pertsonalki, zailena, marinba da. Lau makilekin jotzen da. Makila bakoitzak ahots bat erama ten du. Oso kurioa da.

Musika bezala zein da zure ametsa?

Karrera ondo bukatu eta ni mundu honetatik bizitzera iristera banaiz, ametsa beteta daukat. Aurretik agian banuen orkestra batean sartzeko ametsa baina eskolak ematen oso gustura nabil eta nahikoa errealizatu sentitzen naiz.

Zein lekutan jotzea



amesten duzu?

Beti esan izan dut plaza bakoitzak bere xarma duela. Baina denbora aurrera doan eran, badut amets bat: Amsterdamen bada Concertgebouw aretoa, oso areto zaharra da, akustika oso bereziarekin, instrumentuak larruarekin mantentzen diren ia bakarrak dira...

Orain arte jo duzun kontzertu bereziena?

EGOrakin jo nuen lehenengo kontzertua.

Instrumentu bat:

Bibrafonoa. Perkusiotik kanpora, kontrabaxua.

Musika mota bat:

Jazza eta bluesa.

Musikari bat:

Mahler edo Wagner.

Kantu bat:

Pablo Sorozabalen Gernika.

Aita musikaria izanda gustura egongo da.

Bai. Gainera gauzak nahikoa ondo ateratzen ari zaizkit. Familian, zuzenki honetara dedikatuko naitzen bakarra izango naiz. Baina nik uste, tradizio asko, nire aita eta anaia bezalakoei mantendu direla. Izan ere, guk hobby bezala genuena, lana bihurtu da. Asko gustatuagatik lana da. Gure aitarena-eta aldeantzez izan da. Beraien denbora librean gauzak mantentzeko erabiltzen dute. Horrelakoak beharrezkoak dira, tradizioa mantentzeko.

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ 24 orduko asistentzia
- ✕ e.a.



Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Txinan Euskadiko Gazte Orkestarekin

Euskadiko Gazte Orkestrak lehenengo nazioarteko bira egin du Txinara abenduaren 22tik urtarrilaren 10era. Bertako Gobernuak antolatutako bidaia izan da eta esperientzia ederra bizitzeko aukera izan dute musikari gazteek. Txina Iparraldetik hegoaldera zeharkatu dute. Zeharkaldi nagusia gainera, trenez egin zuten, 30 orduko bidaian. "Batzuk oso ondo eraman genuen. Txinatar batzuekin lagunak egiten saiatu ginen, musean erakusten ere bai. Haiek beste joko bat erakutsi ziguten", azpimarratu du.

Hala ere gogorrena, iritsi eta bi ordura lehenengo kontzertua eman beharra izan zen idiazabalarraren esanetan. "Gaueko 9etan Eibartik atera, Madrilen 5-6 ordu egon, handik Parisa, eta Paristik Guanzhura, 14 bat ordu eta handik Zihora, hegazkinez beste bi ordu. Arratsaldeko 5,30ak aldera iritsi eta 7,30etan kontzertua eman genuen. Ikusi egin behar ziren gure aurpegiak".

Txinaren aurpegi ezberdinak ikusi eta ezagutzeko aukera izan dute. "Iparraldetik hegoaldera alde handia dago. Iparraldean ia mendebalduarik ez zegoen. Arraro begiratzen gintuzten. Gure alturak, sudurrak eta bizarrak txundituta uzten zituzten. Hotza ikaragarria egiten zuen. Kotxe gutxi ikusten ziren. Trafikoa, kaotikoa zen. Hegoaldean, gure hoteleko dantzalekuan adibidez, ez zegoen txinatarrik. Estatubatuar hiriaren tankerakoak ziren hegoaldeko hiriak".

Inkomunikazioa

Hizkuntza eta kulturarekin arazo bat baino gehiago izan dute. "Nahiz eta itzul-



tzaileak ondoan izan, haiei ingelesez ulertzen ere nahikoa lan genuen. Inkomunikatuta sentitu gara. Hango jendeak oso gutxi hitz egin du ingelesez. Baina aldi berean polita izan da. Keinuak ere ezberdinak ziren. Guk eskuarekin edateko egiten dugun keinuak, Txinan, sei esan nahi du adibidez". Bitxikeria bat kontatu digu Telleriak: "Iparraldean ospitalera joan behar izan genuen orkestrako kide batek ukolondoa atera zuelako. Ezinezkoa zen elkar ulertzea. Nik Osakidetzan lan egin izan dut, anbulantzian, larrialdietan, eta plaka bat ateratzeko esaten nien. Plaka atera zien azkenean, eta zegoen bezala uzteko esan zioten. Hemengo mediku batzuei deitu eta azkenean, nik jarri nion hezurra bere lekuan eta hurrengo egunean hegoaldera joatekoak ginenez, mendebaldeko ospitale batera joan ginen".

Musika

Musikaren arloan, kontzertuetan halako inkomunikazioa diogu Telleriari: "Ez da gutxiago ere. Guk Vienako Urte Berriko erreperitorioa



jotzen genuen. Vienako Urte Berriko kontzertua izugarria omen da han Txinako dirudunentzat. Hegazkina hartzen omen dute Vienako kontzertua ikustera joateko".

Hori bai, jarrera ezberdinak nabarmenak izan dira: "Guk, hemen, auditorioan, protokolo handiak dauzkagu: eskuko telefonoak itzaldu, mugimendutik mugimendura ez da txalo egiten... Hura, berriz, taberna batean egongo bagina bezala zen. Telefonoak jotzen, jendea mugitzen, hizketan... Txalo egiteko garaian hotzak dira, baina bukaeran aldiz, harrigarria badirudi ere, besarkatzera etortzen dira, eskua emate-

ra... Hemen zuzendaria ateratzen denean jendeak txalo egiten du eta ondoren, musikariak zutitzen dira. Han inor ez zen txaloka hasten eta guk lehenengotan ez genuen jakiten zutitu ala ez. Ikusleen artean beti egoten zen guretako bat eta hura txaloka hasten zen eta atzetik besteak. Hori bai, oso ezagunak zaizkien obretan, erotuta bezala hasten ziren txaloka eta oihuka. Harrigarria da hain hotzak baina aldi berean hain beroak izatea. Hango opera tradizional bat ikusi genuen, ikusle paperean jarrita. Gurekin zuten jarrera berbera zuten haiekin ere".

Euskara ikasleak familietan



*Familia euskaldunak
behar dituzte
Maizpidekoek*

Maizpide euskaltegikoek euskara ikasleak etxean hartzeko prest egongo liratekeen familia euskaldunak behar dituzte. Familia euskaldunetan bizi izaten badira, Maizpiden euskaldun berriez inguratuta baino euskara 'naturalagoa' ikasten dute. Horretarako hilabeteko hitzarmena egiten dute ikasleak, familiak eta Maizpidek. Astelehen gauek ostiral goizera etxetan afal-

du, lo egin eta gosaltzen dute, horren ordainetan, ikasleek matrikula garestixea-
goa ordaintzen dute eta familiak diru pixka bat jasotzen du. Familian giro euskalduna izatea eta eguneko ordu batzuk euskara ikasleekin konpartitzeko gogoia besterik ez da behar. Hauen eguneroko bizi-tza nolakoa den jakiteko Lazkaoko Kontxi Sukiarengana jo dugu. Berak bi euskara ikasle ditu etxean.

ZUZENKI
A H O L K U L A R I T Z A

Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta:zuzenki@euskalnet.net
Eloegi, 16 LAZKAO

e txekin

www.zuzenki.net

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20
B E A S A I N

Biak Koldo izena dute, bat Irungoa da eta bestea Iruñeko. Urtarrila hasieratik Kontxi Sukiaren etxean bizi dira astelehenetik ostiralera. Eguna Maizpiden ematen dute euskara ikasten eta ondoren afaldu, lo egin eta gosaltzera Kontxiren etxera joaten dira. Normalean afalondoren ordubete bat egiten dute tertulian, "hori izaten da ederrena, niretzat behintzat oso lagungarria da", azaldu digu Kontxik.

Euskara ikasleak, berriz, etxean bezain ondo daudela diote, "agian hobeto, hotel batean bezala. Kontxik pazientzi handia dauka eta asko ari gara ikasten. Gainera oso ondo jaten dugu".

5 urte etxean Maizpideko ikasleak hartzen

2000. urte inguruan, Maizpiden bilera bat antolatu zuten eta Joxe Mari, semeak, animatu zuen joatera. "Bileran egon ondoren probatzea erabaki genuen, orduan nire senarra Pello bizirik baitzegoen. Lehenengo Gasteizko neska bat etorri zen, laneko oporretan hila-bete egon zen gure etxean. Oso gustura egon ginen eta ondoren donostiar gizonezko bat urte guztian eduki genuen. Afal ondoren bi gizonak purua erretzen zuten bitartean tertulia atseginean egoten ginen. Harrezkero denak neskak izan ditut eta orain bi mutilekin nago eta oso gustura".

Kontxirentzat jendea ezagutu arteko denboralditxo hori izaten da zailena. "Niri egia esan behar bada, bakarria baldin badago zailagoa egiten zait elkarriketa aurrera eramatea, hiru baldin bagaude errazagoa egiten zait", azaldu digu.

Hobekuntza nabari zaie

Kurtso osoa egoten direnei hobekuntza nabari die Kontxik. Batek adibidez bi ikasturte oso-osorik egin zituen, maila baxuarekin etorriz



Etorri baino lehen Kontxi itxiagoa izango zela, pentsatzen zuen Koldo irundarrak, baina orain oso gustura dago bere etxean. Argazkian bi ikasleak, Kontxi Sukia eta bonen biloba Malen.

zen eta EGA aterata joan zen. Eta Kontxik dionez, "izugarritzko hobekuntza egin zuen. Eta hori ikustek poz handia ematen du".

Beraz, Kontxik Lazkao edo ingurukoak animatu nahi lituzke etxean euskara ikasleak hartzera. "Nik lagunei-eta bultzatzen diet, baina, zenbait zaila egiten zaio etxean ezezagun bat

hartzea edo ardura hori hartzea. Egun batzuetarako inora ezin zara joan, egunero afaltzeko garairako etxean egon behar zara, baina ez da lotura handiegia ere. Gosaria eta afaria eman behar diezu, beraiek beren gela txukuntzen dute eta zuk astean behin gela garbitzen duzu, ez da besterik. Jendeak probatuko balu errepika-

tuko zukeen". Gainera ez dago baserria izan beharrik, kale-etxean ere berdin-berdin hartu liteke euskara ikaslea.

Etxean izan dituen hainbat ikasleetatik bakar batzuekin mantentzen du harremana. Bakoitzak bere bizimodua daukala eta harreman hori mantentzea zaila dela dio Kontxik.

Ikasleen ikuspegia

Ikasleek euskaltegian ikasten dute eta ondoren, etxean, mintza praktika egiteko aukera izaten dute. Aukera polita da hori beraientzat. "Nik, Iruñean, ez dut egunero hitz egiteko aukerarik eta hemen egotea, euskaraz bizitzea, amets bat bezala da. Hasieran, euskaldun zaharrek hitz egitea zaila da guretzat baina Kontxi ohituta dago. Eta etxean euskaldun zahar batekin hitz egiten ohiu ondoren, adibidez, Ordiziako azokara joan eta gehiago ulertzen diegu bertako baserritarrei. Ikasleok beti gure artean hitz egiten dugu gure akatsekin. Eta etxean ikasten duguna da benetako hizkuntza. Hori da politena", azaldu digu Koldo.

Beste ikasle batzuk baserrietan daude eta hauek berriz kaleko etxe batean, bat edo beste nahiago izatea izaeraren arabera da. Batek, nafarrak, nahiago izango zukeen baserri batean egotea, generazio berdinekin hartu-eman izan, bertako bizitzeko modua ezagutu... "Adibidez adinekoak daude eta beraien gauzez hitz egin eta hizkera ere ikasten da, umeekin ere harremana duzu... baina kaleko etxean ere gustura nago". Irundarrak, berriz, nahiago du kalean bizi, "baserrietan familiak handiagoak dira eta jende gehiago egoten da, nik nahiago dut, horrela, jende gutxiagorekin eta lasaia egotea".

Ez dago baserria izan beharrik, kale-etxean era berdin-berdin hartu liteke euskara ikaslea.

Ikasleak eta hauek hartzen dituzten etxeetakoak mahai inguruan

2000. urtean hasi ziren, Maizpideko euskara ikasleak etxeetan hartzen. Baina azken aldian etxeetara joango lirakekeen ikasleak asko dira eta beraiek hartzeko prest dauden familiak, berriz, gutxi. Hori ikusita, Goierriko familiak animatzeko asmoz-edo, mahai inguru bat egin zuten urtarilaren 12an. Bertan bildu ziren Maizpideko ikasleak eta hauek etxeetan hartzen dituzten familietakoak.

"Familietan egonda ez dugu esaten euskara gehiago ikasten denik, baina, bai euskara goxoagoa ikasten dela. Euskara ikasteko beharrezkoa ikusten dugu hizkuntzaren goxotasun hori ikastea", azaldu zuen Pakea Garmendia irakasleak.

"Niretzat oso aukera polita zen, nik euskaraz bizi nahi bainuen. EGA ateratzen badut hobe baina ez da nire lehentasuna. Ataun Aiako Arbilleta baserrian nago azken 3 hilabetetan. Senar-emazteak, aitona eta hiru alabekin bizi naiz. Haiek normal hitz egiten dute eta nik gehiena ulertzen dut. Zerbait ez badut ulertzen galdetzen dut eta kitto. Oso aukera polita da", dio Patxik, Iruñean bizi den etxarriarrak.



Euskara ikasleren bat etxean bartu nabi duenak Maizpideko 943889231 telefono zenbakira deitzen badu, bertan emango diote informazio geiago.

Ikasleen esanetan, aukera izaten da euskaltegian ikasten dituzten hainbat hitz eta esamolde etxekoei galdetu eta eguneroko hizkuntzan erabiltzen diren edo ez jakiteko.

Mertxe donostiarra Lazkaomendiko Lizargarate baserrian dago eta berarentzat adopzio familia bezalaxe da. "Beste hizkuntza batzuk ikastearen esperientzia banuen eta banekien hoberena familia batean bizi eta bertako ohitura eta hizkera ikastea zela. Abuz-

tuan hasi nintzen Maizpiden eta bi hilabeteren ondoren niretzat kartzela bat bezala zen. Aldaketa oso ona izan da, lasaitasuna eta askatasuna irabazi dut".

Ataungo Aldarreta baserriko Maitek lau bat urte daramatza euskaltegiko ikasleak hartuz eta 13 lagun pasatu dira bere etxetik. "Oso esperientzia polita izan da, dibertitua ere bai, oso jende jatorra tokatu zaigu. Politena iluntzetan afal ondorena izaten da, oso ondo pasatzen du-


gu eta etxekoak bezalaxe hartzen ditugu. Askotan galdetzen dute: Eta zergatik esaten da hori horrela? Hor harrapatzen zaituzte, zuk badakizu horrela esaten dela baina ez zergatik esaten den. Orduan irakasleari galdetzeko esaten diogu", azaldu zuen Maitek beste hainbat kontu eta bitxikeriaren artean. Adibidez: "Behin afaltzen ari ginela heldu zen ikasle bat eta 'on egin deizuela' esan beharrean 'bejondeizuela' esan zigun".

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

**Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak**

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea



euskaraz ere,

NATURAL TASUNEZ

Euskadiko Kutxan euskaraz arreta ematea ez da beste edozein zerbitzu.

Gure lan egiteko modua da.

Matias Garcia Bernaus, argentinarra



Matias 27 urteko argentinarra da, Buenos Aires probintziako Arrecifes herrikoa. Euskal jatorrikoa da, hirugarren abizenek Mariezkurrena, bere heren aitona euskalduna zen leitzarra. 1997an Lazkaon egon zen euskara ikasten eta duela 4 urtetik gure artean bizi da. Lehenik Bizkaia aldean eta azkenaldi honetan Goierriin. Lazkaoko Gerriko taberna lagun batekin hartua du.

Noiz etorri zinen Euskal Herrira?

2001eko otsailaren 1ean iritsi nintzen Euskal Herrira. Urte berean, urrian, itzuli nintzen, baina hiru urte daramazkit joan gabe, ezin izan dudalako joan. Gogorra da.

Paperak lortzea erraza egin al zitzaizun?

PPren gobernuaren agindua dena konplikatzeko izan zela uste dut, nahiz

eta Atzerritarren Legea euren bultzatu. Indarrean jartzeko momentuan, administrazio arloan, dena moteldu dute. Gauzak aldatzen joan direnez, elkarte batzuk sortzen ari dira etorkinekin lanean ari direnak. Hasieran ez zegoen informazio handirik eta askotan okerra izaten zen.

Nolatan erabaki zenuen Euskal Herrira etortzea? 1997an euskara ikastera

“Euskarak asko lagundu dit integratzeko”

etorri nintzen Lazkaoko Maizpidera, Argentinan, Euskal Etxean euskara ikasten ari baikin, gero irakasle izateko. Eta ikasketa prozesua bukatzeko etorri ginen Lazkaora. Hiru hilabetez egon ginen. Lehenengo aldia zen Euskal Herrira etortzen nintzela. Itzuli eta denbora batera, lana nuela, Euskal Herrira etortzeko aukera izan nuen. Erabakiak beti hartu behar dira eta erabaki hori, horietako bat izan zen. **Eta Argentinan zergatik hasi zinen euskara ikasten?**

Euskal Etxeak badaude bai Argentinan eta munduko beste leku batzuetan. Aitonaren aldeko aitona-amonak eraman ninduten behin Euskal Etxera, San

Inazio egun batez. Lehenengo gerturatzeko horretan ez nuen ezer ere jakin nahi euskal dantzekin eta euskararekin. Baina handik gutxira, auzoko lagun asko sartuta zeudenez, ni ere joaten hasi nintzen. 1989a zen. Lehenengo, dantza taldera joaten hasi nintzen eta handik gutxira euskara ikasten hasi nintzen. Egia esanda, gehiegi pentsatu gabe.

Lazkaora etorri zinetenean, aldaketa handia nabaritu al zenuten?

Bai. Argentinakoa, laboratorioko euskara da. Batua da, eta gainera argentinarrok deformatua. Ondo dago hona etorri eta benetako hizkuntzarekin topo egitea. Han ez dauka euskara errealtatean eta he-

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Promozioa:
auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

etxean

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behe
ORDIZIA

- Laborala
 - Fiskala
 - Kontablea
 - Juridikoa
 - Aseguruak
 - Inmueble
- ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

men gutxi edo gehiago bai. Argentinan euskara ikaste prozesu osoa egitea nahikoa zaila. Dena den, hurbiltzeko eta gutxieneko hainbat gauza ikasteko baliotu du.

Zailena zer izan zitzazun Euskal Herrira etorri zinenean?

Lehenengo, paperak lortzea. Eta bestetik, nik uste handik etorri ginen gehienoi gertatu zitzaigula pixka bat, ilusio handiarekin etorri ginen, uste genuen hirugarren mundutik lehenengo mundura gentozela. Hobetze bat nabarmendu beharko litzateke baina zenbait gauzak ez daude ondo, ez hemen eta ez han. Desilusio etapa bat pasatzen dugu. Euskal Herriarekin beste irudi topiko bat ere banuen. Kokatzea ere zaila izan da. Ni, nahi nuen lekura etorri naiz eta euskaldun jatorriko argentinarekin jendea oso ondo portatu izan da. Herrietan hirietan baino estuagoa da harremana.

Lazkaora etorri aurretik Bilbo inguruan egon zinen.

Bai, lehenengo Portugaleten eta gero Algotan. Gogorra izan zen, guretzat Euskal Herria euskararen herria delako eta han oso euskara gutxi egiten zelako. Euskararen egoera gogorra da batez ere ezker aldean. Lazkaora etorri naiz orain. Aurretik ere ezagutzen nuen jendea eta integratzeko errazagoa egin zaigu. Kokatzea eta integratzea oso zaila da, kultura eta ohitura ezberdinak ditugulako, nahiz eta mendebaldeko kulturari bizi. Herri batean inte-



*Lazkaoko Gerriko
tabernan ari da Matias
lanean.*

gratzeko aukera handiagoa da.

Tabernan lan egiteak lagundu al dizu integrazioan?

Bai.

Eta euskarak?

Gu ez gara etorkin arruntak, nahiz eta etorkin asko euskara ikasten hasi den. Etorkinak gero eta gehiago konturatzen ari dira zenbaiterainoko garrantzitsua den euskara jakitea, bertako jendearekin harremanetan egoteko. Bertako jendeak izugarritzko balioa ematen dio etorkinak euskara jakiteari, guk baino gehiago agian.

Argentinatik zer botatzen duzue faltan?

Erdaraz hitz egitean gehiago nabaritzen da argentinarra naizela eta horregatik mugitu izan naiz beti eremu euskaldunetan.

Hemen, nahiz eta bitarteko gehiago eduki, errutinan sartuta dago jendea. Han, bitarteko gutxiagorekin, denetarik egiten saiatzen ginen. Progresoa handiagoa da hemen baina beste alde batetik, askatasunak gehiago murrizten dira. Hemen jatekoa ziurtatuta daukazue lanen bat baldin badaukazue, baina presoago zaudete. Han, eguneroko borroak eramaten zaitu, han eta hemen ibiltzera.

Argentinan zein egoera bizi dute momentu honetan?

Krisiak jarraitzen du. Ekonomia neurtzeko ama daukat han eta berak esaten dit egoera gero eta okerrago dagoela. Nik hari egiten diot kasu. Batzuk esaten dute egoera lasaiago dagoela, gero eta itxaropentsuago daudela, baina amak esaten dit gero eta okerrago dagoela dena. Herrialde bakar batek bakarrik ezin du ezer lortu. Hainbat herrialdek elkarrekin gauzak eginez gero, agian zerbait egin liteke.

Krisi egoera hori kanpotik bizitzea gogorra izango da.

Bai. Leherketa gertatu zenean ni hemen nengoen, eta gogorra da. Nahiz eta

egunero deitu eta han bizi izan, ezin duzu gertatzen dena irudikatu, galdu egiten zara.

Euskaraz hitz egiterakoa ez zaizu nabaritzen argentinarra zarela. Gazteleraz egindakoa, berriz bai.

Euskaraz ere nabaritzen zait, 'S'-ak ia-ia ez ditugu ahoskatzen eta. Idazteko momentuan arazo gutxiago daukat. Erdaraz gehiago nabaritzen da eta horregatik mugitu izan naiz beti eremu euskaldunetan.

Argentinara itzultzeko asmorik ba al duzu?

Ez dakit. Hemen badarabilkit ideia bat buruan eta hori lortzen baldin badut, urte batzuetarako hemen geldituko naiz. Mendi aldera joateko asmoa daukat. Baserri bat alokatu eta zerbait egitea pentsatzen ari naiz, ogibidea handik ateratzeko. Oraingoan, ikasten eta irakurtzen ari naiz. Fraisoron hastekoa naiz ikasten.

Hemengo baserriak ere nahiko krisian daude bada.

Ez. Bizitzeko adina ematen du. Dirua aurreratzeko ez baina bizi, bizi daiteke. Inbertsioak egin beharko ditut eta aurretik dirua bildu beharra daukat.

Joxi
Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA

Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Debaldeko iragarkiak

ETXEBIZITZAK

salgai

Ormaiztegin, oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai. Sukalde-jangela, 3 logela, bainugela eta egongela ederra. Berogailuarekin. 2 garaje eta 100 m²ko baratza. 635729027.

Ormaztegin, erdigunean, etxebizitza salgai. Garajea eta ganbara. 943883209.

Idiazabalen etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukalde ederra, egongela. Igogailua, leiho berriak eta berogailua. Bizitzeko moduan. 943187234.

Lazkaon, erdigunean, etxebizitza salgai. Mobleztatua. 636333966.

Ataunen, etxea salgai. Berri-tua. Bizitzera sartzeko. 2 logela, egongela, sukalde, bainugela eta garajea. 650399303.

Legazpin, pisua salgai. 3 logela, bainugela, egongela, sukalde eta trastalekua. Dena eraberritua. 678696120.

errentan eman

Nafarroan, Urbasa ondoan, etxea alokatzen da. 10 lagun edo gehiagorentzako. Ingurune berdea, aparkalekua, barbakoa, txokoa, egongela. 948539381 - 616537765.

errentan hartu

Hendaian edo inguruan, etxea alokatuko nuke abuztuko lehenengo hamabostaldian. 655730317.

BESTELAKOAK

erosi

Bigarren eskuko faxa erosi edo opari jasoko nuke. 696218195.

Bigarren eskuko txakur txabola erosi edo opari jasoko nuke. 696218195.

Bigarren ordenadore portatila erosiko nuke. 696218195.

salgai

Margotzeko kabina salgai. 2. eskukoa. Echevi markakoa. 10 x 4 x 2,8 neurrikoa. 650206886.

Kamioi arina salgai, bere txar-telekin. Bolketea ere badu. 943160754 - 651701690.

Sutarako egurra salgai, 2 metrora moztuta. 676882842.

Bi ur berogailu salgai. Neurri ezberdinetakoak. Oso gutxi erabiliak. 670422051.

Karabina salgai, 5,40 kalibreduna. Norika marka. 943884207.

GARAJEAK

salgai

Idiazabalen, garajea salgai. 656722825.



GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE

Pedro Jose Landagutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk. BEASAIN



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN



do's formación

% 100ean diruz lagunduak



Etengabeko formakuntza ikastaroak

Ekin-tza edo kurtsoa	Orduak	Data	Ordutegia
INFORMATIKA			
Ofimatika, erabiltzaile maila	30	2005/01/31tik	18:30-19:30
Kalkulu horriak: Excel	25	2005/01/31tik	18:30-19:30
Datu basea: Access	30	2005/01/31tik	18:30-19:30
INFORMATIKA TEKNIKOA			
Irudi tratamendua: Photoshop	30	05/02/28tik 05/03/23ra	19:30-21:30
ADMINISTRATZIOA			
Kontabilitate informatizatua: Contaplus	20	05/04/04tik 05/04/15era	19:30-21:30
Errenta aitortpena	20	05/03/05etik 05/04/09ra	09:00-13:00
Elkarteen zergak	20	05/04/16tik 05/05/14ra	09:00-13:00
HIZKUNTZAK			
Ingelesa: merkatal kudeaketa	70	05/02/23tik 05/06/29ra	19:30-21:30
Frantsesa: merkatal kudeaketa	70	05/02/14tik 05/06/29ra	18:15-19:30
NOBEDADEAK			
Ms. project	10	05/02/24tik 05/02/25era	08:30-13:30
ISO 9001:2000 prozesuak kudeaketa	15	05/02/14tik 05/02/18ra	08:30-11:30

Tel: 943 880346 Faxa: 943 161746
Nafarroa Etorbidea 1, BEASAIN E-mail:

Olagi

Sagardotegia
Jateetxea

Urte guztian zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua

☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**



Pottoka
KAFETEGIA

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

IBILGAILUAK

salgai

Volkswagen Golf IV salgai.
1.8 turbo GTI, edizio berezia,
2001 urtekoa, 17" lantak,
92.500 km. Egoera oso onean.
696415299 (Jon).

Volkswagen Golf TD salgai.
5 atekoa. 652767943.

Citroen Saxo 1.6i salgai.
1999ekoa. Extrak. 606206157 -
943180376.

Peugeot 309 salgai. SS-AG.
943890237 - 696273435.

Opel Vectra 1.600 salgai.
1997koa. 630384721.

Kawasaki GPZ 500S moto-
rra salgai. 1990 urtekoa. Gutxi
erabilia. Gurpil berriak. Ezin
hobea motorrean ibiltzen has-
teko. Kofrea eta ixil eskapeak.
2.000 euro. 651705011.

Opel Corsa dti salgai. 5 ate-
koa. 2001. urtekoa. 33.000
km. 620978809.

Citroen Saxo salgai. 16 v.
Gorria. Extra askorekin. 99. ur-
tekoa. 653735111 -
615878600.

Opel Corsa salgai. Diesela.
NA-AZ. 5 urte. Egoera onean.
677851566.

Trialeko motorra salgai. Gas
Gas JPX 270. 97. urtekoa. Ego-
era oso onean. 1.650 euro.
Harkaitz. 617768011.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

Abenduaren 3 In Aizkorriko
bidean, (San Adrian baino le-
hen), Festina ordulari bat gal-
du nuen. Larruzko uhala eta
urre koloreko esfera dauzka.
636244321.

LG markako memoria
stick grisa galdu da Beasai-
nen. 630737181.

AURKITUTAKO OBJEKTUAK

Aizkorritik Urbiarako bi-
dean kotxeko giltzak aurkitu
dira. 943085503.

LANA

eskaerak

Taxi lizentzia salgai.
679018184.

Pertsona bat behar da 2
haur zaintzeko eta etxeko la-
nak egiteko. 943085281.

Zaldibian, pertsona euskal-
duna behar da, ordu batzutan,
bi haur zaindu eta etxeko la-
nak egiteko. 943882923. Arra-
tsaldetan deitu.

**Haur bat zaindu eta etxe-
ko lanak** egiteko pertsona
bat behar da. 943028855.
20:00etatik aurrera deitu.

eskaintzak

Neska euskalduna eskain-
tzen da arratsaldean edozein
lan egiteko. 619601111

Emakumea prest dago
9:00etatik 16:00etara edozein
lan egiteko. 615700408.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbaki: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak



kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12



NAFARROA ETOR, 9
T/F 943 88 94 82



Beasainen gara:

Urbialde plaza 7 behea
(Hitzaren ondoan)

Tel.: 943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com



Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain
ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

2004-2005
IKASTURTEA

INFORMATIKA-GELA

Otsailean ikastaro berriak!

✓ Ikastaroak

- Ingelera
- Word, acces, excel
- mekanografia

✓ Internet

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH, Batxilergoa
- ✓ Moduluak, Zikloak
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Talde txikiak

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku



kutxa

gizarte ekintza



Idiazabalgo dantzari txikiak

Argazkian ageri direnak, Idiazabalgo dantzariak dira. 1980. urte ingurukoa argazkia da, Axari dantza taldearen lehenengo urteetan aterakoa da hain zuzen ere. Gaur egun Kultur Etxea dagoen lekuan daude. 7 eta 12 urte bitarteko haurrak dira, beraien irakasleen ondoan.

Ikastetnik
psikopedagogia zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta tratamendua
• Test-ak, Frogak • Tailerrak

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

TOLARE
URBITARTE
SAGARDOTEGIA
☎ 943 18 01 19 **ATAUN**

zuhaizki
Zurgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ
Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura


Teilatuak

Tximiniak

...



Jaiak (denda espezializatua)



Plaza Majori 12 (Ordizia) Telf.-943 88 82 32

Ihauteriak 2005



Zuretzako astia

www.antizizar.net

tel. 943 887900



publika